Bestelako Xedapenak

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

585

17/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 27koa, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan LAB erakunde sindikaleko ordezkari bat kendu eta beste bat izendatzeko dena.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko azaroaren 24ko 27/1992 Legea aldatzen duen abenduaren 26ko 62/1997 Legeak interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak arautzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiako portuak sartzen dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurraldea antolatzeko modua eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta sozial handia kontuan hartuta, aipatutako legeak beharrezko neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritza-egitura horiek portuak artezten dituzten organoak dira.

Hori dela-eta, abenduaren 26ko 62/1997 Legearen artikulu bakarreko 14. paragrafoak finkatzen duenez, autonomia erkidegoek ezarriko dute portuetako agintaritzen administrazio kontseiluak zenbat kidek osatuko dituzten, eta, halaber, autonomia-erkidegoek izendatuko dituzte administrazio kontseiluetan ordezkaturiko herri administrazioek, entitateek eta erakundeek proposaturiko kideak, aipatutako 14. paragrafoan finkatu ziren irizpideen arabera.

Aipatutako lege horretan ezarritakoa betetzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak maiatzaren 5eko 82/1998 Dekretua onartu zuen, hain zuzen ere, Bilboko eta Pasaiako portuetako agintaritzetako lehendakariak eta administrazio-kontseiluetako kideak izendatu eta kentzeko zein prozedurari jarraitu behar zaion eta horretarako eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko zein organok duen zehazteko.

Aipatu dekretuaren 5.1 artikuluan ezartzen duenez, «Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak eta enpresaburuen elkarteek eta sindikatu-elkarteek sei batzarkide izango dituzte portuetako agintaritzetako administrazio-kontseiluetan, eta honela banatuko dira:

a)……

b)……

c) Portua dagoen lurralde historikoko sindikatu handienak: batzarkide bat.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

585

DECRETO 17/2009, de 27 de enero, de cese y de designación de un Vocal representante de la Organización Sindical LAB en el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasajes.

La Ley 62/1997, de 26 de diciembre, de modificación de la Ley 27/1992, de 24 de noviembre, de Puertos del Estado y de la Marina Mercante, regula los puertos clasificados como de interés general, clasificación que, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi corresponde a los de Bilbao y Pasajes.

Dada la organización territorial del Estado y el impacto económico y social que para las Comunidades Autónomas tienen los puertos de interés general ubicados en su territorio, la citada Ley establece las medidas precisas para facilitar que aquéllas participen con mayor intensidad en la estructura organizativa de las Autoridades Portuarias, órganos rectores de dichos puertos.

A tal fin, la Ley 62/1997, de 26 de diciembre, ha dispuesto en el punto 14 de su artículo único que el número de Vocales de los Consejos de Administración de las Autoridades Portuarias sea establecido por las Comunidades Autónomas, correspondiendo, asimismo, a las mismas la designación de dichos Vocales, a propuesta de las Administraciones públicas, entidades y organismos representados en el Consejo de Administración, conforme a los criterios que dicho punto 14 establece.

En cumplimiento de lo establecido en la citada Ley, el Consejo de Gobierno Vasco aprobó el Decreto 82/1998, de 5 de mayo, por el que se determina el procedimiento y el órgano competente de la Comunidad Autónoma del País Vasco para designar y separar a los Presidentes de las Autoridades Portuarias de Bilbao y Pasajes y a los Vocales de sus respectivos Consejos de Administración.

El artículo 5.1. del citado Decreto establece que «Las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación y las organizaciones empresariales y sindicales estarán representados en el Consejo de Administración de la respectiva Autoridad Portuaria por seis vocales, que se distribuirán de conformidad con los siguientes criterios:

a)……

b)……

c) Organización sindical con más representatividad en el conjunto del Territorio Histórico donde se ubique el puerto: un Vocal.

d) Portu alorreko sindikaturik handienak: batzarkide bat.

Azken puntu horretarako, portu alorrak Portuko Agintaritza osoa eta portuan lan egiten duen zamalanetako sozietate publikoa hartzen ditu.

Dekretu beraren 5.2 artikuluan ezartzen duenez, «Batzarkideak izendatzeko proposamenak Garraio eta Herri Lan Sailari jakinaraziko zaizkio, Sailak proposamena Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu, eta Kontseiluak batzarkideak izenda ditzan». Eta 5.3 artikuluan ezartzen duenez, «Batzarkideak izendatzeko erabiltzen den prozedura bera erabiliko da kargutik kentzeko».

Aipatutako xedapena betetzeko, LAB erakunde sindikalak Garraio eta Herri Lan Sailari jakinarazi dio Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan elkarte hori ordezkatuko duen batzarkide bat kendu eta beste bat izendatzeko proposamena.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta maiatzaren 5eko 82/1998 Dekretuan ezarritakoari jarraituz (Bilboko eta Pasaiako portuetako agintaritzetako lehendakariak eta administrazio-kontseiluetako kideak izendatu eta kentzeko zein prozedurari jarraitu behar zaion eta horretarako eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko zein organok duen zehazten baitu dekretu horrek), Garraio eta Herri Lan sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Jarraian aipatzen den pertsona Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseilutik kentzea, ondoko erakunde sindikalak hala eskatu duelako:

1.1.– LAB erakunde sindikalak eskatuta:

– Ramón Fanlo Dauphin jauna.

2. artikulua.– Ondoren zehazten den erakunde sindikalak eskatuta eta maiatzaren 5eko 82/1998 Dekretuaren 2. artikuluaren 3. idatz-zatian aurreikusitako terminoetan, Pasaiako Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko batzarkide izendatzea haren ordezkari izateko:

2.1.– LAB erakunde sindikalak eskatuta:

– José Ramón Zapirain Larraza jauna.

d) Organización Sindical com más representatividad en el ámbito portuario: un Vocal.

A estos efectos, se considera ámbito portuario al conjunto de la Autoridad Portuaria y de la Sociedad Pública de Estiba y Desestiba que opere en el puerto».

El artículo 5.2. del mismo Decreto establece que «Las propuestas de designación serán notificadas al Departamento de Transportes y Obras Públicas a fin de que éste las eleve al Consejo de Gobierno para la definitiva designación de los vocales.» Y según prescribe el art. 5.3. «Igual procedimiento que para la designación de los vocales se seguirá para su separación».

En cumplimiento de la citada disposición, la Organización Sindical LAB ha notificado al Departamento de Transportes y Obras Públicas la propuesta de cese y nombramiento del vocal representante de dicha Organización en el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasajes.

En su virtud, y de conformidad con lo establecido en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, así como en el Decreto 82/1998, de 5 de mayo, por el que se determina el procedimiento y el órgano competente de la Comunidad Autónoma del País Vasco para designar y separar a los Presidentes de las Autoridades Portuarias de Bilbao y Pasajes y a los Vocales de sus respectivos Consejos de Administración, a propuesta de la Consejera de Transportes y Obras Públicas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de enero de 2009,

DISPONGO:

Artículo 1.– Cesar como vocal del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasajes a la persona que a continuación se relaciona, a propuesta de la Organización Sindical que se indica:

1.1.– A instancia de la Organización Sindical LAB:

– D. Ramón Fanlo Dauphin.

Artículo 2.– Designar, a propuesta de la Organización Sindical que se indica y en los términos previstos en el párrafo 3 del artículo 2 del Decreto 82/1998, de 5 de mayo, a la persona que a continuación se relaciona como vocal del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasajes, quien actuará en representación de aquella:

2.1.– A instancia de la Organización Sindical LAB:

– D. José Ramón Zapirain Larraza.

AZKEN XEDAPENA

Kendutako eta izendatutako ordezkariak nortzuk diren Pasaiako Portuaren Agintaritzako Administrazio-Kontseiluko lehendakariari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango du indarra dekretu honek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de la notificación al Presidente del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasajes de la nueva designación de vocal, debiéndose publicar en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.